


Munduko mikroprozesadore azkarrena

Digital etxeak orain arteko mikroprozesadore azkarrena merkaturatzeko asmoa du. 275 MHz-koa da, eta ez dirudi denboraldi batez beste inork lehia egingo diotnik. Izan ere, PC ordenadoreentzako mikroprozesadore azkarrenak 66 MHz-ekoak dira eta badirudi lehiakideen hurrengo urratsa gehiezez ere 150 MHz-erainokoa izango dela. Mikroprozesadore berria fabrikatzeko teknologia oso aurreratua da. Horrela lortu dute azkartasuna, baina argitu beharra dago 36 watt baino gehiagoko potentzia bero bihurtzen

Digital etxeak orain arteko mikroprozesadore azkarrena merkaturatzeko asmoa du. 275 MHz-koa izango da.



duela eta PC ordenadoreek orain dituzten mikroprozesadoreek 5-10 watt baino ez dituztela horretan erabiltzen.

Bideo numerikoarentzat formatu bakarra

Bideokaset numerikoak 1997. urtean formatu bakarrak merkaturatuko dira. Aldi berean Japonian bereizmen handiko telebista jarriko da martxan eta munduko bideo-gile nagusiak ados jarri dira ordurako guztiek formatu bakarra erabiltzeko. Orain arte bideo analogikoekin gertatu dena saihestu nahi dute. Izan ere, aldi berean sistema bat baino gehiago edukitzea (VHS, Beta, 2.000, etab.) erabiltzaileentzat kaltegarria izan da; bai ekonomiaren eta bai teknikaren aldetik. Irudia numerikoki erregratututa, erreproduk-

zioan ez da kalitaterik galduko eta zinta gertuta ia irudi perfektua lortuko da. Hurrengo belaunaldiko magnetoskopiaok, bideokasetean telebista klasikoko lau ordu grabatzeko gai izango dira, eta bereizmen handiko telebista bada, bi ordu grabatu ahal izango ditu. Zinta magnetikoa, oraingo VHS sistema-koek duten zabaleraren erdia izango dute. Bi magnetoskopia-mota merkaturatuko dira: bata gelan edukitzekoa izango da eta bestea (hiru aldiz txikiagoa eta arinagoa) kameskopia-ko hornitzekoa.

Fotokopien ezabagailua

Japoniako Ricoh etxeak, balio ez duten fotokopien testua ezabatu eta papera aprobetxatzeko sistema proposatu nahi du. Probatzen ari diren metodo baten arabera, laserrez eta ohizko faxez inprimatutako paperak ezabatu eta horrela hamabi aldiz erabiltzeko aukera eskaini nahi da. Funtzionatzeko era simplea da. Inprimatutako orria makinara sartzen denean, 100 °C ingururaino berotzen da eta orduan disoluzio bat ihintzaten zaio. Disoluzioak tinta bigundu eta askatu egiten du. Orria gero arrabol batetik pasatzen da eta hor disoluzioa eta tinta jaso egi-

ten dira. Orain probatzen ari diren prototipoak minutuko hiru orri garbitzen ditu.

Airetan enbalatua

Batetik bestera objektu hauskorrek seguru garraiatu behar direnerako, PVC materialez egindako Air Box izeneko enbalajea oso egokia da. Enbalajea ponpa txiki batez puutzen da, eta



Batetik bestera objektu hauskorrek seguru garraiatu behar direnerako, PVC materialez egindako Air Box izeneko enbalajea oso egokia da.

ponparik ezean, ahoaz putz eginda. Aireak, enbalajeak dituen bi mintzen artean kokatzen da eta multzoak koltxo pneumatico gisa jokatzen du, garraiatu nahi den objektua babestuz. Garraiatutako objektua berreskuratzeko, aski da estalkiari zulo txiki bat egitea.

